

Hernanik kronika.net



Osteguna, 2010/03/18

Kronika.net
Argazkiak
Elkarriketak
Jasota Bezala
Inkesta eta Eztabaida
Zerbitzu eta Helbideak
Agenda
Kronika Bereziak
Dokumentuak
Publizitatea
Egin Bazkide

AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun data

2010	
martxoa	
17	

BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



KRONIKA.NET

SAGARDOETXEA - UDABERRIKO JARDUERAK

Polinizazioak sagardoari nola eragiten dion ezagutzeko aukera bihar, etzi eta igandean

Astigarragako Sagardoetxeak jarduera bereziak antolatu ditu martxoko zubirako eta Aste Santurako: erakustaldia eta sagardo muztioa egiteko aukera.

2010/03/18 - Osteguna

Astigarragako Sagardoetxeak, hau da, Sagardoaren museoak, jarduera bereziak antolatu ditu martxoko zubia eta Aste Santua etxean pasatzea pentsatu dutenentzat. Sagardoetxea bisitatzeko aukeraz gain, antolatu dute erakustaldia eta sagardoa norberak egiteko aukera.

Zubian polinizazioaren garrantzia ezagutzeko aukera

Aitaren eguna dela eta, zubi egunak dira biharkoa, larunbatekoa eta igandekoa. Hori aprobetxatuz, Sagardoetxeak erakutsiko du nola eragiten dion polinizazioak sagardoari. Bisitariei erakutsiko diete polinizazioak duen garrantzia sagarraren produkzio onean.

Horrez gain, baita ere izango dira bisita gidatuak, erakustaldiak eta Eusko Label eztiaren produktuen erakusketa.

Aste Santuan sagardo muztioa egiteko aukera

Aste Santuan ere zabalik izango da Sagardo museoa. Gerturatzen direnek sagardo muztioa euren eskuekin egiteko aukera izango dute: kizkiarekin sagarra jasoko dute, patxa egingo dute, sagarra piseoekin joko dute eta eskuzko tolarean zanpatuko dute, muztioa lortzeko. Elaborazio prozesuarekin amaitutakoan, Euskal Herriko gazta ezberdinak probatzeko aukera izango dute.

ORDUTEGIA:

Martxoak 19-20:

11:00-13:30

eta 16:00-19:30

Martxoak 21:

11:00-13:30

Apirilak 1etik-10era:

11:00-14:00

eta 16:30-20:00

Apirilak 11:

11:00-14:00



Zabaldurako!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

[web mapa](#) | [kontaktua](#)

THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

ARGAZKIAK



IKUSI

Momentu honetan inkestarik ez dago

Eztabaida Lekua



Dobera bloga

Zure bloga gurekin



GAURKO KRONIKA

